EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (CES-EGAB) itzulpen-zerbitzuak kontratatzea, betiere, plegu honetan zehaztu diren espezifikazioekin bat etorriz.

2. KONTRATUARI LOTUTAKO ZERBITZUAK

Kontratu honen itzulpen-zerbitzuak CES-EGABen irizpenak, txostenak, memoriak, argitalpenak eta beste dokumentu batzuk gaztelaniatik euskarara eta alderantziz itzultzea dira.

3. DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

CES-EGABeko langileek posta elektronikoz bidaliko dituzte itzuli edo zuzendu beharreko dokumentuak, itzulpena egiteko epea adierazita, eta, premiazkoa bada, azpimarratuta.

Enpresa itzultzaileak uneoro errespetatu beharko du itzuli beharreko testuaren formatua, jaso duen formatu berean bidalita, eta artxiboa posta elektronikoz bidaliko du cesegab@cesegab.com helbidera.

Itzulpenek jatorrizko dokumentuen eduki osoa hartu beharko dute. Eskatutako itzulpena testu osoarekin bat ez badator, CES-EGABeko langileek itzuli beharreko zatia markatu eta identifikatuko dute. Enpresa itzultzaileak itzulitako testua txertatuko du markatutako testuaren lekuan.

Enpresa itzultzaileak beti entregatuko ditu lanak itzulita, zuzenduta eta berrikusita, akats mekanografiko, ortografiko, tipografiko, linguistiko, estilistiko, puntuazio, formatu, itzulpen, ulermen eta aurkezpen akatsik gabe. Kapitulu bat baino gehiago dituzten dokumentuetan, itzulpen-irizpidea bateratuko dela bermatuko da.

Itzulpenek zintzo islatu beharko dituzte jatorrizko dokumentuak, euskararen edo gaztelaniaren hizkuntza- eta gramatika-ezaugarriek eskatzen dituzten egokitzapenekin. Itzulpen bat ez baizik jatorrizko testu bat dirudien diskurtso irakurterraz eta autonomoarekin. Urgentziaren kontzeptua ezin izango da inola ere erabili itzulpen baten kalitate eskasaren justifikazio gisa.

Agirietan aipatzen diren arauen tituluek Eusko Jaurlaritzak euskaraz zein gazteleraz ezarritako tituluaren araberakoak izan behar dute.

Itzulpen guztiak Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak kontuan hartuta egingo dira.

Itzulpen-irizpideak bateratze aldera, enpresa esleipendunak itzulpen-taldeko pertsona bat izendatuko du, CES-EGABekin harremanetan jartzeko.

Enpresa esleipendunak egindako itzulpenak epe barruan entregatzeko konpromisoa hartuko du. CES-EGABek uneoro eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari data jakin batera arte egindako itzulpen-lana entregatzeko, nahiz eta amaituta ez izan.

Itzulpenerako bidaltzen diren dokumentu guztien edukia isilpean erabiliko du esleipendun enpresak, eta ezingo ditu erabili CES-EGABek agindutako lanari erantzuteko ez bada.

Lizitazioaren xede diren zerbitzuak ezin izango dira azpikontratatu.

Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao
Tf: 944792150 - cesegab@cesegab.com
www.cesegab.com - @cesegab

4. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA

Kontratua betetzeko egiten diren eragiketa guztietan, esleipendunak arduraz zainduko du lanari eta lan-arriskuak prebenitzeari buruz indarrean dagoen legeria betetzen dela. Lan-arriskuei eta prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiak dagokion sektorean xedatutako guztia bete beharko du, eta, bereziki, honako printzipio hauen ingurukoa: prebenitzeko ekintza (Lan Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 15. artikulua), langileen prestakuntza (19. artikulua) eta lantaldea zein babesteko bitartekoak (17. artikulua), bai eta gairen inguruko araudi espezifikoa ere..

5. FAKTURAZIOA

Esleipendunak hilero fakturatuko ditu emandako zerbitzuak, eskainitako prezioaren arabera. Fakturan, agindutako zerbitzuaren kontzeptuaren araberako itzulpenak, kontzeptu horretarako itzulitako hitzen kopurua eta horren kostua zehaztuko dira..

6. ESLEIPENDUNAREN GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK

Enpresa esleipendunak giza baliabide eta baliabide tekniko egokiak eta nahikoak izan beharko ditu CES-EGABi laguntza eta laguntza teknikoa emateko, kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala eta modu optimoan ezartzen direla bermatzeko.

7. SEKRETUA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Lizitatzaileek zein esleipendunek konpromisoa hartuko dute CES-EGABetik lor dezaketen informazio guztia isilean eta konfidentzialtasunez tratatzeko eta, bereziki, datu pertsonalei dagokiena, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorriz. Gainera, saiatu egingo dira haren kargura dauden langileek ez zabaltzea eta zaintzea, erakunde honek idatziz baimena ematen duen kasuetan izan ezik. Betebehar hori indarrean egongo da nahiz eta kontratua amaituta edo baliogabetuta egon. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Dekretuarekin bat etorriz.

Bilbon, 2021ko irailaren 2an.

Emilia M. Málaga Pérezes

Presidentea

Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao
Tf: 944792150 - cesegab@cesegab.com
www.cesegab.com - @cesegab